

Annus mirarizkoa

Annus Mirabilis (1905) emankorreko artikuluak eta zenbait hitzaldi

Egilea: Albert Einstein

Itzultzailea: J.R. Etxebarria

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Klasikoak SA

KARLOS DEL OLMO

Testu espezializatu batzuek, honako honen antzera, goi mailako espezializazio maila eskatzen dute behar bezala itzuliko badira. J.R. Etxebarriak euskarara ekarritako artikulua bilduma hau testu genero berezi batekoa da: lan zientifiko zehatz eta latzak ditugu; halaxe agertu baitziren, hain suertez, *Annalen der Physik* aldizkari zientifikoan. Gaia, berezia: fisika; hartzaileak, hasi bidez, bereziagoak: iritzira ekarri beharreko adituak. Eta itzulpenari dagokionez, euskararen egungo ahalbide eta baliabideekin gaur-gaurko euskaldun jantzientzat ordaindu beharra. Guztiarekin ere, bigarren zatira batutako artikulua eta hitzaldiak eskuragarriagoak dira, askotarikoagoak, are narratiboagoak ere, aditu batean gezurra balirudike ere. Artikuluetako batzuk lehendik euskaratuta eta argitaratuta zeuden, I. Azkunek 1993an Gaiak argitaletxearen bidez plazaraturiko *Munduari buruzko nire pentsamoldea* aitzingidarian.

Halako testuetan garrantzikoena eremu tematikoa bera da, eta itzultzaileak, gura eta ez, jantzita behar du alor horretan itzulpengintza arrakastaz gauzatu ahal izateko. Terminologia eta dokumentatzeko gaitasuna ditugu halako testuekin azartzen den itzultzailearen prenak. Eta terminologiari dagokionez, dena dela, terminoa bera baino, garrantzikoena terminoak garraiatzen duen kontzeptua da: terminoa xede hizkuntzan behar bezala ordaindu ahal izateko, noraezekoa da aipagai den terminoarekin erlazionatzea. Jose Ramon Etxebarriak ondo baino hobeto menderatzen ditu alor eta genero hauei dagozkien konbentzio linguistiko eta testualak. Eta Klasikoak bilduma berean argitaraturiko *Erlatibitatearen teoria, Einsteinek berak azaldua* bezain pedagogikoa ez den arren —eta honako sorta honen zientzi maila gorabehera—, Etxebarriaren itzulpenari maisutasuna dario, berbak dituen bi adierarik arruntenetan: maisuki itzultzeaz gain, maisuen antzera itzulpen didaktiko eta argia egiten dendatu delako.

Mota honetako testuetan informazioa, edukia, helaraztea da eginkizun nagusia, errealitate estralinguistikoa, ideiak eta gertaerak behar bezala aditzen ematea. Neurri batean, edukia unibertsala da, zientzia hizkuntz komunitate batera mugatuta ez dagoen heinean. Eta alabadere, teknikotasuna edo berezitasuna gorabehera, terminologia testuaren % 5 bat besterik ez da izan ohi, honako hauei azaletik begiratzeaz batera gezurra badirudi ere.

Artikuluak hurrenkera kronologikoan datoz, eta oso denbora tarte zabala hartzen dutenez gero (1914-1953), balio erantsi moduan datorkigu pentsalariaren bilakaera bera aztertzeke aukera paregabea, zientzialariez beste inork ezagutzen ez zuen garaitik mundu osoan ospetsu izaterainokoa.

Euskararen baliabide estilistiko mota gehienak erabili ditu Etxebarria zientzialari itzultzaileak egileari zor zaion begirunea eta irakurlearekiko ulergarritasun zorra orekatzeko saiakera honetan, eta dendua ezin hobeto lortu duela dirudi; alemanetik zuzenean itzuli ez badu ere, gutxienez, beste hiru hizkuntzetarako itzulpenak erabili ditu-eta langai eta harroin.

Txukun-txukun argitaraturiko liburua da, nahiz eta pasarte batean edo bestean maketazio arazoek esaldiak behar bezala ulertzea galarazten duten (esaterako, 27. orrialdean), baina lantegiak jotako erronka teknikoa bera ere ez zen inondik inora erraza, alafede.

Testu sorta honen balio ia literarioak zenbaterainokoak diren behar bezala ulertzeko, ikus bedi "Egia zientifikoari buruz" artikulu bere txikitasunean ezinago handia. Etxebarriak sarreran dioen moduan, testu honen bitartez irakurleak ez bairik gabe lortuko du itzultzaileak opetsitako atsegin bete-betea. Eta ez da gutxi, alafede! Azken batean, itzulpengintzari ere aplikatu diezaiokegu Einsteinen esaldi hau: "metodo zientifikoak ez gintuzkeen inora eramango (...), aldeztu aurretik ulermen argia lortzeko borroka sutsua egon izan ez balitz".